

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

2797

127/2025 DEKRETUA, ekainaren 17koa, ontzat ematekoa Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunei beste batzuk gehitzekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan.

Transferentzien Batzorde Mistoak hitzartutako akordioaren 2. artikuluan ezarritakoa betez –irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak onartu zuen–, eta bertan ezartzen diren formalizazio-izapideak betetze aldera, dekretu honen xedea da Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren osoko bilkurak 2025eko maiatzaren 30ean lortutako akordioa onartzea, ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunei –Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arlokoak– beste batzuk gehitzeko.

Horren ondorioz, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko ekainaren 17an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren 2025eko maiatzaren 30eko Akordioa, ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunei (Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arlokoak) beste eginkizun batzuk gehitzeari buruzkoa, ekainaren 17ko 512/2025 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan, eta errege dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzeko agintzea, dekretu honen eranskin gisa.

2. artikulua.– Eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita egongo dira aurrerantzean.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 17an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

ERANSKINA, EKAINAREN 17KO 127/2025 DEKRETUARENA

Errege-dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Estatuko Administrazioak ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunei –Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak betetzen dituen Ikuskaritzako Funtzio Publikoaren arlokoak– beste eginkizun batzuk gehitzea.

Konstituzioak 149.1.7 artikuluan adierazten du Estatuak duela laneko legeriaren arloko eskumen eksklusiboa, autonomia-erkidegoetako organoek betearaztearen kalterik gabe.

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak –abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak– 12.2 artikuluan xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio laneko legeriaren arloko Estatuko legeak betearaztea, bere gain hartuz Estatuak lan-harremanen inguruan gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak; bai eta, Estatuko goi-ikuskaritzarekin batera, Estatuaren zerbitzuak antolatze, gidatzeko eta zaintzeko ahalmena ere, lan-arloko legegintza betearazteko, lan-baldintzak gizartearen garapen eta aurrerapen mailaren arabera izan daitezen, langileen kualifikazioa eta prestakuntza integrala sustatuz.

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoak, 2025eko maiatzaren 30eko bilkuran, Estatuko Administrazioak ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunei –Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arloko eginkizunak dira– beste batzuk gehitzeko akordioa hitzartu zuen. Akordio hori Gobernuari bidali zaio, errege-dekretu bidez onartzeko.

Ondorioz, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen dena betez, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroak proposatuta eta Ministro Kontseiluaren 2025eko ekainaren 17ko bileran aztertuta, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Batzorde Mistoaren akordioa onartzea.

Onartu egiten da Batzorde Mistoak 2025eko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran hitzartutako akordioa, Estatuko Administrazioak ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunei –Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arlokoak– beste batzuk gehitzeari buruzkoa. Akordio hori errege-dekretu honen eranskinean jaso da.

2. artikulua.– Eskualdatutako eginkizunak gehitzea.

Ondorioz, gehitu egiten dira Estatuko Administrazioak ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak, Batzorde Mistoaren akordioan ageri den bezala eta bertan zehaztutako termino eta baldintzen arabera.

3. artikulua.– Eskualdatutako eginkizunen gehikuntzaren eraginkortasuna.

Batzorde Mistoaren akordioan adierazitako egunetik aurrera izango ditu ondorioak eskualdatutako eginkizunen gehikuntzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA, EKAINAREN 17KO 512/2025 ERREGE DEKRETUARENA

Jorge García Carreño jaunak eta Begoña Pérez de Eulate González andreak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoaren idazkariak diren aldetik, hau

ZIURTATZEN DUTE:

Transferentzien Batzorde Mistoak, 2025eko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran, akordio bat hitzartu zuen, Estatuko Administrazioak ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunei –Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arlokoak dira– beste batzuk gehitzeko, ondoren zehazten den moduan:

A) Eginkizunak gehitzearen oinarri diren konstituzioko eta estatutuko arauak

Konstituzioak 149.1.7 artikuluan adierazten du Estatuak duela laneko legeriaren arloko eskumen eskusiboa, autonomia-erkidegoetako organoek betearaztearen kalterik gabe.

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak –abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak– 12.2 artikuluan xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio laneko legeriaren arloko Estatuko legeak betearaztea, bere gain hartuz Estatuak lan-harremanen inguruan gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak; bai eta, Estatuko goi-ikuskaritzarekin batera, Estatuaren zerbitzuak antolatze, gidatzeko eta zaintzeko ahalmena ere, lan-arloko legegintza betearazteko, lan-baldintzak gizartearen garapen eta aurrerapen mailaren arabera izan daitezen, langileen kualifikazioa eta prestakuntza integrala sustatuz.

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Konstituzioko eta Estatutuko xedapen hauek oinarri hartuta egoki da Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzaren ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako Estatuko Administrazioaren eginkizunei beste eginkizun batzuk gehitzeko akordioa formalizatzea.

B) Gehitzen diren Estatuko Administrazioaren eginkizunak

Estatuko Administrazioak ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzaren ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunei beste batzuk gehitzen zaizkie; zehazki, lurralde-eremu horretarako ikuskaritza-eginkizuna eskualdatzen da, lan-harremana Euskal Autonomia Erkidegoan duten atzeritarren norberaren edo besteren konturako hasierako lan-baimenen gaineko lan-arloko arauak behar bezala betetzeko.

C) Gehikuntzaren eraginpeko aurrekontu-kredituak

Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunei beste batzuk gehitzeari lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa 1. zerrendan jaso da.

D) Gehitzen diren eginkizunei lotutako dokumentazioa eta espedienteak

Gehitzen diren eginkizunen dokumentazioa eta espedienteak hiru hilabeteko epean entregatu behar dira, akordio hau onartzen duen errege-dekretua argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

E) Gehikuntzaren eraginkortasun-data.

Akordio honen xede den gehikuntzak 2025eko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Eta jasota gera dadin, ziurtapen hau ematen dute Madrilén eta Vitoria-Gasteizen, 2025eko maiatzaren 30ean. Batzorde Mistoaren idazkariak: Jorge García Carreño jauna eta Begoña Pérez de Eulate González andrea.

1. ZERRENDAA

ESTATU-MAILAKO URTEKO KOSTU OSOA

(2023ko milaka eurotan)

19. atala. Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa

Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa
19.03.000X.418	659,37
Guztira	659,37